

EBAZPENA, 2008ko XXaren XXkoa, Lanbide Heziketako eta Etengabeko Ikaskuntzako sailburuordearena, Hasierako Lanbide Prestakuntzako Programako modulu espezifikoetako eta orientazio- eta tutoretza-moduluetako curriculumara arautzen duena honako esparru honetarako: ile-apaintetako laguntzailea Euskal Autonomia Erkidegoan.

2008ko ekainaren 10eko Aginduak, Euskal Autonomia Erkidegoko Hasierako Lanbide Prestakuntzako Programak arautzen dituenak, 10. artikuluan zehazten du Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak ezarriko duela, ebazpen bidez, Hasierako Lanbide Prestakuntzako Programa berrietako modulu espezifikoetako eta orientazio- eta tutoretza-moduluetako curriculumara.

Curriculum horiek arautzeko, Lanbide Heziketako eta Etengabeko Ikaskuntzako sailburuordetzak ebazten du,

Lehenik: Ebazpen honen I. eranskinean jasoko dela irudi pertsonalaren lanbide-arloko ile-apaintetako laguntzaileen Hasierako Lanbide Prestakuntzako Programako modulu espezifikoetako eta orientazio- eta tutoretza-moduluetako curriculumara.

Bigarrenik: Ebazpen honen II. eranskinean jasoko direla ikasketak horiek osatzen dituzten bi ikasturteetako prestakuntza-modulu espezifikoetako ordutegiak.

Hirugarrenik: Modulu-multzoan zehaztutako prestakuntzak gaitasuna ematen du lanbide-erantzukizunak betetzeko; lan-arriskuen prebentzioko oinarritzko mailako jardueretarako (39/1997 Errege Dekretuak ezartzen ditu, Prebentzio Zerbitzuen Araudia onartzen duenak) behar diren baliokideak izango dira lanbide-erantzukizun horiek.

Laugarrenik: Programa gainditzean eskuratzen den ikasketak-ziurtagiria lurralde nazional osoan ofiziala izango da eta ikasketak- eta lanbide-balioa izango du. Gainera, profilean jasotako 1. mailako gaitasuna egiaztatzen du, horrek lanbide-jarduera arautzen ez badu ere, eta, hala dagokionean, ez du salbuesten araututako lanbideak betetzeko prestatutako xedapenak edo akordioak betetzetik.

Vitoria-Gasteiz,

Lanbide Heziketako eta Etengabeko Ikaskuntzako sailburuordea.

I. ERANSKINA

HASIERAKO LANBIDE-PRESTAKUNTZAKO PROGRAMA

Izena: **ILE-APAINKETAKO LAGUNTZAILEA**

Kodea: IRU1015

Lanbide-arloa: irudi pertsonala

1. LANBIDE-PROFILA

A. *Gaitasun orokorra*: ekipameduak prestatzea, ilea eta buruko ile-larrua garbitzeko eta egokitzeko teknikak aplikatzea, forma eta kolorea aldatzeko teknikak aplikatzea, oinarritzko ile-mozketak egitea, azazkalak apaintzea, beti ere, teknikari arduradun batek gainbegiratuta, eta agindutako higiene eta segurtasun baldintzak betez.

B. *Gaitasun sozialak, pertsonalak eta lanbide-gaitasunak*

- Bezeroarekin komunikatzea, horrek behar duenari eta espero duenari buruzko informazioa biltzeko, eta, gainbegirale baten laguntzaz, enpresako zerbitzuak eskaintzea, eta zerbitzu horiek bezeroaren ezaugarrietara, eskarietara eta beharretara egokitzea.
- Ilea eta buruko ile-larrua garbitzeko protokolo normalizatuak egokitzea, eta egin behar den ile-apainketako tenknikak behar duen egokitzea egitea.
- Ezarritako prozedurak jarraitzea, eta buruko ile-larruaren eta ilearen alterazioen zainketa estetikoa egitea, segurtasun- eta higiene-baldintzak betez.
- Aldaketa-teknika aplikatzea, denbora baterako eta/edo betirako, orrazkeraren eta/edo orrazkera bilduaren arabera, eta orrazkera egokitzea bezeroaren konplexio fisikoara eta ezaugarri morfologikoetara . (teknikari batek gainbegiratuta).
- Kolorea aldatu aurretik, laneko protokolo normalizatu egokitzea, eta dekolorazioa egiteko aukeratutako kosmetikoak aplikatzea aukeratutako teknikaren arabera, segurtasun- eta higiene-baldintzak betez, bezeroaren beharrek eta eskariekin bat etorrituz, eta teknikari arduradunak esandakoari jarraiki.
- Kutikula estetikoki zaintzeko teknikak aplikatzea, azazkalen forma aldatzea zaintzeko, leuntzeko edo makillatzeko tekniken bitartez, horien forma estetikoa hobetzeko, bezeroaren ezaugarrien eta gustuen arabera, eta aurretik ezarritako protokoloak egokituz; beti ere, segurtasun- eta higiene-baldintza egokiak beteko dira.
- Eguneko makillajea egitea, bezeroaren ezaugarrietara eta beharretara egokituz, eta behar diren aurretiko protokoloak betetzea; hori guztia, segurtasun- eta higiene-baldintza egokietan.
- Bezeroaren eskaria eta beharrak identifikatzea, irudi pertsolaren alorrean salmentan dauden produktuei eta zerbitzuei buruzko informazioa eta aholkuak emateko, sustapen-ekintza eta salmenta-teknika egokiak erabiliz, enpresan ezarritako jarduera komertzialaren mugen barruan.
- Oinarritzko ile-mozketetarako teknikak aplikatzea, eta estilo desberdinetako mozketak egitea, bezeroaren ezaugarri fisikoetara eta horren eskarietara egokituz, aurretiko prozedura egokiak aplikatuz, eta segurtasun- eta osasun-baldintzak betez.
- Lan bakoitzeko emailerako emaitza baloratzea zehaztutako helburuarekiko, eta bezeroaren asebetetze-maila zenbatekoa den aztertzea. Gainera, bezeroari informazioa eta aholkuak ematea, lortutako emaitzak hobeto mantentzeko neurrien inguruan (teknikariaren laguntzaz).
- Lanak aplikatzean kontrako ondorioren bat gertatzen bada, lehen sorospenerako eta alterazio estetikoaren zainketarako teknikak aplikatzea.
- Norberaren ahalmena zenbatekoa den jakitea, eta orientazio-puntuak, laguntza eta aukerak onartzea, norberak aurrera egiteko, bai alor pertsonalean, bai eta lanbide-alorrean ere.

- Etorkizunean izango duen bilakaerarekin lotutako egitura sozialak eta lanbide-egiturak identifikatzea, eta egokitu ahal izateko eta aurrera egin ahal izateko behar diren printzipioak, harremanak eta jokoak zein diren jakitea.
- Bizitza ekonomikoan, sozialean eta kulturean aktiboki parte hartzea, jarrera kritikoz eta arduratsuz, arazoak konpontzeko eta erabaki koherenteak hartzeko.

C. Prestakuntzen eta/edo gaitasun-unitateen zerrenda

- Lanbide-prestakuntza osoa:
 - Ile-apainketako zerbitzu osagarriak (IMP022_1, 295/2004 ED).
 - Gaitasun-unitatea: ekipamenduak prestatzea, eta ilea eta buruko ile-larrua garbitzea eta egokitzea.
 - Gaitasun-unitatea: denbora baterako eta betirako forma-aldaketetarako muntaiak egitea, eta orrazkerari hasiera ematea.
 - Gaitasun-unitatea: ileari kolorea emateko edo ilea dekoloratzeko teknikak aplikatzea.
- Lanbide-prestakuntza partzialak:
 - Ile-apainketa (IMP119_2, 1087/2005 ED).
 - Gaitasun-unitatea: aholkuak ematea, eta irudi pertsonalerako produktuak eta zerbitzuak saltzea.
 - Gaitasun-unitatea: Ilea moztea, eta bizarra eta bibotea apaintzea eta moztea. Prestakuntza-kreditua: oinarrizko ile-mozketa, eta teknika osagarriak.
 - Estetika-zerbitzu osagarriak (IMP118_1, 1087/2005 ED).
 - Gaitasun-unitatea: eguneko makillajeak egitea.
 - Gaitasun-unitatea: oinarrizko zainketa estetikoak aplikatzea azazkaletan.

D. Lanbide-ingurunea

- Lanbide-eremua
Orokorrean, ile-apainketako enpresa txikietan eta ertainetan gauzatzen du bere lanbide-jarduera, besteren konturako.
- Sektore ekoizleak
Ile-apainketako lanak egiten dituzten sektore ekoizleak; batez ere, ile-apaindegietan. Irudi pertsonalerako zerbitzuen sektorea.
- Lanbide eta lanpostu nagusiak
Ile-apainketako laguntzailea.

2. IRAKASPENAK

A. Derrigorrezko modulu eta prestakuntza-kreditu espezifikoak, eta orientazioko eta tutoretzako moduluak

1. Ile-apainketara aplikatutako higiena eta asepsia.
2. Orrazkeraren forma aldatzeko muntaiak eta orrazkerari hasiera ematea.
3. Kosmetikoak aplikatzea, ilearen kolorea aldatzeko.
4. Azazkalen oinarrizko zainketa estetikoak.
5. Eguneko makillajea.
6. Ilea moztea, eta teknika osagarriak.
7. Aholkuak ematea, eta irudi pertsonalerako produktuak eta zerbitzuak saltzea.
8. Lantokiko prestakuntza.
9. Orientazioa eta tutoretza.

B. Derrigorrezko prestakuntza-modulu orokorrak: ebazpen espezifiko batean argitaratuko dira.

1. Modulua: **ILE-APAINKETARA APLIKATUTAKO HIGIENEA ETA ASEPSIA**

Honako gaitasun-unitate honekin erlazionatua: ekipamenduak prestatzea, eta ilea eta buruko ile-larrua garbitzea eta egokitzea.

Edukiak eta eskuratutako gaitasun-mailaren adierazleak

Ekipoak prestatzea

- Ile-apainketako ekipamenduetan eta lanabesetan erabiltzen diren material motak identifikatzea, eta horiek garbitzeko, desinfektatzeko eta/edo esterilizatzeko metodo egokiena zein den adieraztea.
- Ile-apainketan erabiltzen diren lanabesak, gailuak eta ekipamenduak sailkatzea.
- Kutsatzaile fisiko, kimiko eta biologiko posibleak identifikatzea.
- Garbiketa, desinfektatze, esterilizatze eta asepsia kontzeptuak bereiztea.
- Arrozoitzea zein egoeratan desinfektatu behar den, eta zein egoeratan esterilizatu, material motaren eta hori kutsatzeko aukeren arabera.
- Ile-apainketan aplikatu daitezkeen garbiketa-, desinfektzio- eta esterilizazio-metodoak deskribatzea.
- Ile-apainketako ekipamenduen prestatetako eta antolaketako protokolo egokiak deskribatzea.
- Materialaren asepsiarako metodo egokiak aplikatzea.
- Desinfektzio- eta esterilizazio-metodoen aplikazioko sekuentziazioa eta dosimetria.
- Desinfektatzeko eta esterilizatzeko gailuak deskribatzea. Eraginak eta funtzionamendua.
- Desinfektatutako ekipamenduak kutsatzaile posibleetatik isolatzeko metodoak aplikatzea.

Ilea eta buruko ile-larrua garbitzea eta egokitzea

- Higiene-teknikak deskribatzea, jarraian egin behar den zerbitzuaren edo aurretik egin denaren arabera.
- Ilean higienarako prozesua azaltzea, koloreztatzeetan, dekolorazioetan eta betirako forma-aldaketetan.
- Garbiketarako eta egokitzerako kosmetiko egokiak aukeratzea.
- Higiene-teknika aplikatzea, eta bezeroaren buruko ile-larruaren eta ilearen ezaugarrietara, eta bezeroak eskatutako zerbitzura, egokitzea teknika hori.
- Egokitze kapilarra egitea, aplikazio-maniobrak eginez.

Buruko ile-larruaren eta ilearen alterazioetako prozedurak gauzatzea, eta tratamendu estetikoak aplikatzea, diagnosiaren eta eskatutako zerbitzuaren arabera

- Norberaren beserako eta tratamendua jaso behar duen pertsonaren babeserako neurriak aplikatzea.
- Egin behar den tratamendurako lanabes, osagarri eta gailu espezifikoak maneiatzea.
- Masaje kapilarrerako teknikak aplikatzea.
- Tratamendu-protokolo estandar batean egin beharreko lanak deskribatzea.
- Ile-tratamendurako teknika espezifikoak deskribatzea, antzemandako alterazioen arabera.
- Aplikatu behar den tratamendua deskribatzea, bai eta produktuak eta gailuak aplikatzean eduki daitezkeen sentipenak ere.
- Ilea eta buruko ile-larrua prestatzeko lan teknikoak egitea, tratamendua aplikatu ahal izateko: jarrera ergonomikoan jartzea pertsona, higiene kapilarrerako teknikak, zatiketak, bestelakoak.
- Tratamendua aplikatzeko behar diren produktu kosmetikoak prestatzea, edo, hala badagokio, horien prestatetan parte hartzea, eta behar diren lan fisiko-kimikoak egitea.
- Gailuen programatzea egitea, edo, hala badagokio, programatzean parte hartzea, eta parametroak kalkulatzeko behar diren eragiketak egitea, aplikazioa behar bezalakoa izan dadin, tratamendu-protokoloa, pertsonaren ezaugarriak eta fabrikatzailearen jarraibideak aintzat hartuta.

Mikroorganismoak eta parasitoak

- Kontzeptua eta mikroorganismo motak.
- Ile-apainketako zerbitzua ematean transmititu daitezkeen mikroorganismo patogenoak.
- Ile-apainketako parasitoak. Pediculosisa.

Bezeroari harrera ematea, eta bezeroa prestatzea

- Bezeroari harrera eta arreta ematea.
- Bezeroaren fitxa.
- Bezeroarentzako eta langilearentzako babes-ekipamenduak.

Ilea

- Ile motak eta buruko ile-larru motak.
- lleko eta buruko ile-larruko alterazio ohikoenak:
- ileko egitura-alterazioak.
- Beste ohiko alterazio batzuk: seborrea, pitiriasia.
- Alterazioak kopuruan. Jatorria eta sailkapena.
- Buruko ile-larruko infekzio ohikoenak.
- Ile zikina.
- llearen zikloa.

Higiene-kosmetikoak

- Xanpuak: kontzeptua, osaera, jokaera-mekanismoa eta motak.
- lle-egokitzailak: kontzeptua, osaera, jokaera-mekanismoa eta motak.
- Xanpu bat eta ile-egokitzaila bat aukeratzeko irizpideak.
- Arreta-neurriak.

Azalaren anatomia eta fisiologia

- Azala, egitura eta funtzioak.
- Azal-eranskinak: motak eta sailkapena.
- Guruinak: egitura, funtzioak eta motak.

Eduki horiek irakatsi ondoren, horiek menperatu dituenak gai izan behar du moduluarekin lotutako gaitasun-unitatean zehaztutako lanbide-jarduera burutzeko, aurretik deskribatutako ekoizpen- eta informazio-bitartekoak erabiliz; ohiko lanbide-testuinguruetan eta -egoeretan egingo du hori guztia.

Prestakuntza-testuinguruko oinarrizko baldintzak

1. Espazioak eta instalakuntzak

Tailer-gela, 60 m²-koa.

2. Ekipamenduak

Besaulkia; apain-mahaia; burua garbitzeko tokia; handitzeko gailuak eta tresnak: lupa eta mikrobisorea. Gailuak eta horien osagarriak: lurrina eta lurrin-ozonoa sortzeko gailua; zipriztingailua; goi-maiztasuneko korrontea sortzeko gailua; infragorriak; Wood argizko lanpara; bibragailua; esterilizatorako gailuak: izpi ultramoreen bidezkoa eta autoklabea. Zenbait lanabes: ontziak, orraziak, ile-eskuilak, tindu-eskuilak, brotxak, probetak, etab. Arropa zuria. Produktu kosmetikoak, forma kosmetiko desberdinetan: higiene kapilarrerako produktuak ile mota guztientzako: tonikoak, ile-egokitzailak; parasitoen kontrako produktuak; ile-tratamendu estetikoetarako kosmetika espezifikoa; produktu antiseptikoak eta desinfektatzaileak. Material birziklagarrientzako eta kutsagarrientzako edukiontzia.

3. Prestatzailearen lanbide-profila

- a) Ekipamenduak prestatzearekin eta ilea eta buruko ile-larrua garbitzearekin eta egokitzearekin erlazionatutako jakintzak eta teknikak menperatzea. Honako era hauetako batean egiaztatu ahal izango du hori:
 - Lanbide-arlo honekin erlazionatutako goi-mailako teknikari izateko prestakuntza akademikoa, eta maila altuagoko beste batzuk.
 - Gutxienez hiru urteko lan-esperientzia izatea prestakuntza-modulu honekin lotutako gaitasunen alorrean.
- b) Gaitasun pedagogikoa, eskumendun administrazioek ezarritakoari jarraiki egiaztatua.

2. Modulua: ORRAZKERAREN FORMA ALDATZEKO MUNTAIK ETA ORRAZKERARI HASIERA EMATEA

Honako gaitasun-unitate honekin erlazionatua: denbora baterako eta betirako forma-aldaketetarako muntaiak egitea eta orrazkerari hasiera ematea.

Edukiak eta eskuratutako gaitasun-mailaren adierazleak

Denbora baterako forma-aldaketetarako muntaiak egitea, eta orrazkerari hasiera ematea

- lle mota eta horren egoera aztertzea.

- Forma-aldaketa muntatzeko behar den molde edo osagarri mota eta horren tamaina aukeratzea, eta erabakia arrazoitzea.
- Muntaien norabideen irudikapen grafikoa egitea, nahi den emaitza lortzeko.
- Aukeratutako kosmetikoa aplikatzea behar den bezala.
- Lehorgailuaren tenperatura eta distantzia egokitzea ilea motara eta horren egoerara eta horren hezetasun-mailara.

Betirako forma-aldaketetarako muntaiak egitea

- Langilearen eta bezeroaren babeserako neurriak deskribatzea.
- Ile mota eta horren egoera aztertzea.
- Forma-aldaketa muntatzeko behar den molde mota eta horren tamaina aukeratzea, eta erabakia arrazoitzea.
- Moldeak jartzea ile-apaintzaile teknikariak esandako norabidean, lortu nahi den emaitzaren arabera.
- Tenkikariak aukeratutako kosmetiko erreduktorea aplikatzea, eta ile guztia homogeneouski bustitzea horrekin.
- Prozesua kontrolatzea (esposizio-denbora, tenperatura, hala badagokio, produktua kentzea...) teknikariaren jarraibideen arabera.
- Kosmetiko neutralizatzailea aplikatzea homogeneouski, eta, esposizio-denbora amaitzean, ilea urez garbitzea eta egokitzea.

Ilea

- Funtzioa, kontzeptua eta ezaugarriak.
- Ilearen egitura eta ezaugarriak.

Ilearen forma aldatzea

- Ilearen forma-aldaketak eta horren oinarriak.
- Denbora baterako forma-aldaketak: jarraitzen diren prozedura fisikoak. Aplikaturako tekniken bidez lortutako emaitzetan eragiten duten faktoreak.
- Betirako forma-aldaketak: faseak eta eraginak.

Denbora baterako eta betirako forma-aldaketetarako kosmetika espezifikoak

- Denbora baterako forma-aldaketetan erabiltzen diren kosmetikoak. Motak eta jokaera.
- Betirako forma-aldaketetan erabiltzen diren kosmetikoak. Motak eta jokaera.

Segurtasuna eta osasuna

- Lanabesak eta osagarriak garbitzea eta desinfektatzea forma-aldaketetarako.

Denbora baterako eta betirako forma-aldaketak egiteko teknikak

- Ile-orrazkerak, oinarrizko akaberak eta orrazkera bilduak eta berrikuntzak.
- Teknika berritzaileak.
- Ile-orrazkerak, oinarrizko akaberak eta orrazkera bilduak eta berrikuntzak.

Eduki horiek irakatsi ondoren, horiek menperatu dituenak gai izan behar du moduluarekin lotutako gaitasun-unitatean zehaztutako lanbide-jarduera burutzeko, aurretik deskribatutako ekoizpen- eta informazio-bitartekoak erabiliz; ohiko lanbide-testuinguruetan eta -egoeretan egingo du hori guztia.

Prestakuntza-testuinguruko oinarrizko baldintzak

1. Espazioak eta instalakuntzak

Tailer-gela, 60 m²-koa.

2. Ekipamenduak

Besaulkia; apain-mahaia; ilea moldekatzeko, lehertzeko eta horri akabera emateko gailu elektrikoak eta horien osagarri guztiak: lehorgailu finkoak edo eskuzkoak, eskuila elektrikoa, kurrikak, plantxak, beroa sortzeko gailu aire-gabeak. Orraziak, ile-eskuilak, moldeak, matxardak, zipriztingailua, materiala garbitzeko, desinfektatzeko eta esterilizatzeko ekipamenduak, material birziklagarrientzako eta kutsatzaileentzako edukiontziak.

3. Prestatzailearen lanbide-profila

- a) Denbora baterako eta betirako forma aldaketetarako muntaiak egitearekin eta orrazkerari hasiera ematearekin erlazionatutako jakintzak eta teknikak menperatzea. Honako era hauetako batean egiaztatu ahal izango du hori:

- Lanbide-arlo honekin erlazionatutako goi-mailako teknikari izateko prestakuntza akademikoa, eta maila altuagoko beste batzuk.
 - Gutxienez hiru urteko lan-esperientzia izatea prestakuntza-modulu honekin lotutako gaitasunen alorrean.
- b) Gaitasun pedagogikoa, eskumendun administrazioek ezarritakoari jarraiki egiaztatua.

3. Modulua: **KOSMETIKOAK APLIKATZEA, ILEAREN KOLOREA ALDATZEKO**

Honako gaitasun-unitate honekin erlazionatua: ileari kolorea emateko edo ilea dekoloratzeko teknikak aplikatzea.

Edukiak eta eskuratutako gaitasun-mailaren adierazleak

Kosmetiko koloreztatzaileek eta dekoloratzaileek eta ileari kolorea aldatzeko erabiltzen diren teknikak ilean zer eragin duten aztertzea

- Ilearen kolorazio naturala eta tonu-eskala deskribatzea.
-
- Ilea koloreztatze produktuak sailkatzea horien izaeraren, aplikazioaren emaitzaren iraupenaren eta osaera orokorraren arabera.
- Produktu kosmetikoen osaera orokorra azaltzea, bai eta ilearen kolorea aldatzeko osagai aktiboek duten jokoera ere.
- Ilearen koloreztatze eta dekolorazio mota bakoitzak duen helburua deskribatzea.
- Ilea koloreztatu aurretik egin beharreko lan teknikoak azaltzea.

Bezeroa kokatzea, babestea eta prestatzea, kolore-aldaketarako (erabatekoa edo partziala, denbora baterakoa edo betirakoa) teknikak aplikatzeko

- Bezeroa jarrera ergonomiko egokian jartzea, eta behar den jantziekin babestea.
- Bezeroaren azala babestea, azaleko narritadurak edo orbanak ekiditeko.
- Langilea babestea produktu koloreztatzaileengandik eta dekoloratzaileengandik, behar diren jantziak eta/edo osagarriak erabiliz.

Ilearen kolorea aldatzeko egin behar diren lan teknikoak egitea

- Kosmetiko koloreztatzaileak eta dekoloratzaileak aplikatzeko egin beharreko nahasketak azaltzea, fabrikatzaileak eta teknikari arduradunak emandako jarraibideen arabera.
- Produktuak aplikatzeko moduak deskribatzea, eta horiek erlazionatzea ilearen kolorea aldatzeko teknikekin, lortu nahi diren emaitzen arabera.
- Ilearen kolore-aldaketaren bilakera:
 - bezeroa babestea produktu kosmetikoen eraginetik, dagozkion jantziekin eta osagarriekin.
 - Produktua prestatzea tenkikari arduradunaren jarraibideen arabera.
 - Produktua aplikatzea ile-sustraietan eta/edo ilean batez ere.
 - Ile-tindua edo kosmetiko dekoloratzaileak aplikatzea, koloreztatze partzial bertikalerako (ile-sortak) oinarritzko barietateetan: orraziarekin, txanoarekin, aluminio-paperarekin edo beste teknika batzuekin.
 - Ileraren dekolorazio- edo koloreztatze-prozesua gainbegiratzea, eta, beharrezkoa bada, denborak aldatzea.

Ilea koloreztatze eta dekoloratzeko kosmetiko espezifikoak

- Dekolorazio- eta koloreztatze-produktuen jokoera.
- Kolore-aldaketetan erabiltzen diren kosmetikoekiko tolerantzia probatzea: kolore-aldaketa gauzatzeko baldintzak eta jarraibideak eta emaitzak behatzea.

Segurtasuna eta osasuna

- Kolorea aldatzeko kosmetikoak aplikatzeko ekipamenduak garbitzea eta desinfektatzea.

Ilearen kolorea aldatzeko kosmetikoak

- Lortu nahi den emaitzerako egokiena den ile-tindua aukeratzea.
-
-
- Dekoloraziorako eta finkatzeko kosmetikoak: oxidatzaileak eta azeleratzaileak.

Eduki horiek irakatsi ondoren, horiek menperatu dituenak gai izan behar du moduluarekin lotutako gaitasun-unitatean zehaztutako lanbide-jarduera burutzeko, aurretik deskribatutako ekoizpen- eta informazio-bitartekoak erabiliz; ohiko lanbide-testuinguruetan eta -egoeretan egingo du hori guztia.

Prestakuntza-testuinguruko oinarrizko baldintzak

1. Espazioak eta instalakuntzak

Tailer-gela, 60 m²-koa.

2. Ekipamenduak

Besaulkia, apain-mahaia, pintzelak, orraziak, ile-eskuila, ontziak, probetak, espatulak, matxardak, beroa emateko gailuak (airedunak edo aire-gabeak): infragorriak, lehorgailuak. Txanoak, eskularruak, kronometroa, aluminio-papera eta ile-sortetako aplikaziorako beste elementu batzuk, produktu oxidatzaileak forma kosmetiko desberdinetan, produktu koloreztatzaileak, finkatzaileak, desugertzeko produktuak, bebeserako produktu kosmetikoak, kapa, aurreko mantala, toallak, mantala, produktu desinfektatzaileak, gailu esterilizatzailea (izpi ultramoreen bidezkoa edo autoklabea). Material birziklagarriarentzako eta kutsatzailearentzako edukiontzia.

3. Prestatzailearen lanbide-profila

- a) Ilea koloreztatze eta dekoloratzeko teknikak aplikatzearekin erlazionatutako jakintzak eta teknikak menperatzea. Honako era hauetako batean egiaztatu ahal izango du hori:
 - Lanbide-arlo honekin erlazionatutako goi-mailako teknikari izateko prestakuntza akademikoa, eta maila altuagoko beste batzuk.
 - Gutxienez hiru urteko lan-esperientzia izatea prestakuntza-modulu honekin lotutako gaitasunen alorrean.
- b) Gaitasun pedagogikoa, eskumendun administrazioek ezarritakoari jarraiki egiaztatua.

4. Prestakuntza-modulua: AZAZKALEN OINARRIZKO ZAINKETA ESTETIKOAK

Honako gaitasun-unitate honekin erlazionatua: oinarrizko zainketa estetikoak aplikatzea azazkaletan.

Edukiak eta eskuratutako gaitasun-mailaren adierazleak

Bezeroaren eskuen eta oinen ezaugarriak aztertzea, eta, hala badagokio, alterazio posibleak identifikatzea, teknika egokienak aplikatzeko

- Teknikari arduradunari kontsulta egitea eskatzen duten azazkaletako anomaliak deskribatzea.
- Eskuen eta azazkalen ezaugarri morfologikoak erlazionatzea, amaierako forma egokiena aukeratzeko.
- Ohiko galderak egitea, zerbitzuak zer eskariri eta beharrei erantzun behar dien jakiteko.

Bezeroa, ekipamenduak eta baliabideak prestatzea, segurtasun- eta higiene-teknika espezifikoak aplikatuz

- Eduki behar den itxura deskribatzea, ileari, janzkerari, osagarriari eta higiene-baldintzei dagokienez.
- Bezeroaren eta langilearen jarrera ergonomikoak deskribatzea, manikura- eta pedikura-teknikak aplikatzeko.
- Teknika estetikoetan aplikatzen diren higienarako eta desinfekziorako metodoen zerrenda egitea - garbiketa, fisikoak, kimikoak.
- Lanabesak, materialak eta produktuak prestatzea, eta behar diren higiene- eta desinfekzio-teknikak aplikatzea, horien osaeraren eta helburuen arabera.
- Bezeroa prestatzea, behar diren higiene- eta segurtasun-baldintzak betez, depilaziorako, dekoloraziorako, manikurarako, pedikurarako edo makillajerako teknikak aplikatzeko.

Manikurako oinarrizko teknikak aplikatzea azazkalak eta kutikula zaintzeko, behar diren lanabesak eta kosmetikoak aukeratzeko, eta prozesua ordena egokian gauzatzea

- Manikura- eta pedikura-prozesuen faseak azaltzea, eta horietako bakoitzean zer lan tekniko egiten diren adieraztea.
- Kosmetikoak, lanabesak eta materialak erlazionatzea manikuran eta oinetako azazkalen zainketa estetikoan erabiltzen diren teknikekin, eta hori arrazoitzea.
- Bezeroa prestatzea eta babestea, egin behar den zerbitzuaren arabera.
- Manikuraren eta pedikuraren oinarrizko bilakaera:

- Behar diren produktuak eta lanbesak aukeratzea eta prestatzea.
- Kutikulak desmakillatzeko, limatzeko eta egokitze teknikak gauzatzea, eta horiek egokitzea azazkalen ezaugarrietara eta bezeroak eskatutako zerbitzura.
- Masajeko maniobrak egitea, ezarritako ordanari jarraiki.

Azazkalak leuntzeko eta makillatzeko teknikak aplikatzea, eta zerbitzuaren emaitzak ebaluatzea, eta, hala badagokio, dagozkion neurriak proposatzea

- Azazkalak leuntzeko teknikak aplikatzea, lanbes eta produktu espezifikoak erabiliz: kosmetikoak, gamuzak edo limak; beti ere, kontuan hartuko dira azazkalen ezaugarriak.
- Azazkala leundu edo makillatu aurretik, azazkal azpitik produktuen hondakinak garbitzeko teknikak deskribatzea.
- Esmaltearen kolorea aukeratzeko irizpideak azaltzea, eta horiek erlazionatzea arroparen kolorearekin eta masailtako gorriarekin, armonia egokia sortzeko.
-
- Apainketa-kosmetikoak aplikatzea azazkaletan, hiru pintzelkada eta bi eskualdiko teknika espezifikoak aplikatuz, emaitza uniformeak lortzeko.
- Ohiko galderak egitea bezeroa gustura geratu ote den jakiteko, zerbitzuaren emaitzari eta arreta pertsonalari dagokienez.
- Bezeroa gustura ez geratzea eragin dezaketen arrazoen zerrenda egitea, bai arrazoi teknikoena, bai eta bezeroari emandako arretarekin erlazionatutakoena.

Eduki horiek irakatsi ondoren, horiek menperatu dituenak gai izan behar du moduluarekin lotutako gaitasun-unitatean zehaztutako lanbide-jarduera burutzeko, aurretik deskribatutako ekoizpen- eta informazio-bitartekoak erabiliz; ohiko lanbide-testuinguruetan eta -egoeretan egingo du hori guztia.

Prestakuntza-testuinguruko oinarrizko baldintzak

1. Espazioak eta instalakuntzak

Tailer-gela, 60 m²-koa.

2. Ekipamenduak

Besaulkia, ohatila, apain-mahaia. Manikurarako eta pedikurarako altzariak. Lanabesak: gramaje eta lodiera desbedinetako limak, laranjondo-makillatxoa, aliketak, guraizeak, azazkal-leungailuak, hatz-banagailua, ontziak, oinentzako bainuontzia, espatula, mantala. Produktuak, kotoia, gazak, belakiak. Produktu kosmetikoak: azazkaletarako desmakillatzaileak, bigungarria, keratolitikoak, larruazala hidratatzeko krema, azazkal-esmalteak. Material birziklagarrientzako eta kutsatzaileentzako edukiontziak.

3. Prestatzailearen lanbide-profila:

- a) Manikurako eta pedikurarako oinarrizko teknikak aplikatzearekin erlazionatutako jakintzak eta teknikak menperatzea. Honako era hauetako batean egiaztatu ahal izango du hori:
 - Lanbide-arlo honekin erlazionatutako goi-mailako teknikari izateko prestakuntza akademikoa, eta maila altuagoko beste batzuk.
 - Gutxienez 3 urteko lan-esperientzia izatea prestakuntza-modulu honekin lotutako gaitasunen alorrean.
- b) Gaitasun pedagogikoa, eskumendun administrazioek ezarritakoari jarraiki egiaztatua.

5. Modulua: EGUNEKO MAKILLAJEA

Honako gaitasun-unitate honekin erlazionatua: eguneko makillajeak egitea.

Edukiak eta eskuratutako gaitasun-mailaren adierazleak

Eguneko makillajerako egoki diren lanabesak eta kosmetikoak aukeratzea eta prestatzea

- Makillajearen erabiltzen diren lanabesak zein diren jakitea, eta horiek era egokian erabiltzeko, garbitzeko eta mantentzeko arauak ezartzea.
- Erabili behar diren garbitzeko edo apaintzeko kosmetikoak prestatzea, eta horiek ordenatzea lana errazteko.
- Produktu kosmetiko apaingarrien tonuak aukeratzeko irizpideak deskribatzea, bezeroaren azalaren, ilearen, begien eta arroparen tonuen arabera.
- Eguneko makillajea egitean argiak duen eragina arrazoitzea.

Higiene-teknikak aplikatzea, eta bezeroaren aurpegiko azala prestatzea, eguneko makillajea egiteko

- Bezeroa jarrera ergonomikoan jartzea, eta horren jantziak babestea, desmakillatze-teknikak aplikatzeko.
- Makillatu-aurreko teknikak aplikatzea:
 - Aurpegiaren azaleko higienarako lan teknikoak egitea, produktu kosmetiko egokiak erabiliz, eta norabide egokiak deskribatzea, gunearen arabera: begiak, ezpainak, aurpegia, lepoa eta bularra.
 - Aurpegiko azala tonifikatzea, orbikularren gunetik pasa gabe.
 - Hidratatzeko edo tenkatzeko kosmetikoa aplikatzea, fabrikatzailearen erabilera-arauei jarraiki.

Eguneko makillajerako teknikak aplikatzea, dagozkion segurtasun- eta higiene-neurriak betez, nahi den emaitza lortzeko

- Seguratasunerako eta higienarako neurriak deskribatzea, eguneko makillaje bat egitean aplikatu behar direnak.
- Eguneko makillaje pertsonalizatua lantzea.
 - Bezeroa aztertzea, eta behar diren galderak egitea, bere estilo pertsonala zein den jakiteko.
 - Erabiliko diren koloreen armonia aukeratzea, eta erabakia arrazoitzea.
 - Azal motarako egokia den makillaje-hondoa aplikatzea teknika espezifiko baten bitartez.
 - Begietako, ezpainetako eta masailletako kosmetiko apaingarriak aplikatzea teknika egokien bitartez, eta behar diren lanabesak trebetasunez maneiatzea.
 - Galderak egitea bezeroa gustura geratu ote den jakiteko, zerbitzuaren emaitzari eta jasotako arreta pertsonalari dagokienez.

Eguneko makillajearen prozesuak eta emaitzak identifikatzea, eta desbiderapen posibleak zuzentzeko neurriak aplikatzea

- Makillaje-zerbitzua behar bezalakoa ez izatea eragin dezaketen arrazoi zerrenda egitea: arrazoi teknikoak, eta bezeroaren arreta pertsonalari buruzkoak.
- Ohiko galderak egitea bezeroa gustura geratu ote den jakiteko, zerbitzuaren emaitzari eta jasotako arreta pertsonalari dagokienez.
- Zebitzua ematean sor daitezkeen desbiderapenen zuzenketak proposatzeko neurri egokienak deskribatzea.
- Galderak egitea bezeroa gustura geratu ote den jakiteko, zerbitzuaren emaitzari eta jasotako arreta pertsonalari dagokienez.

Eduki horiek irakatsi ondoren, horiek menperatu dituenak gai izan behar du moduluarekin lotutako gaitasun-unitatean zehaztutako lanbide-jarduera burutzeko, aurretik deskribatutako ekoizpen- eta informazio-bitartekoak erabiliz; ohiko lanbide-testuinguruetan eta -egoeretan egingo du hori guztia.

Prestakuntza-testuinguruko oinarrizko baldintzak

1. Espazioak eta instalakuntzak

Tailer-gela, 60 m²-koa.

2. Ekipamenduak

Besaulki etzangarria edo ohatila, apain-mahaia, mahai lagungarria. Materialak garbitzeko eta esterilizatzeko produktuak. Lanabesak, ontziak, espatula, toallak, mantala, maindiretxoak, eta abar. Produktu kosmetikoak: maquillaje-hondo arina, betile-maskara, marra margotzeko arkatzak, kolore desberdinetakoak, masailletako gorria, hauts solteak eta konpaktuak, ezpainetako barra, etab. Material birziklagarrientzako eta kutsatzaileentzako edukiontzia.

3. Prestatzailearen lanbide-profila

- a) Eguneko makillajerako tekniken bidez azalaren itxura zuzentzearekin erlazionatutako jakintzak eta teknikak menperatzea. Honako era hauetako batean egiaztatu ahal izango du hori:
 - Lanbide-arlo honekin erlazionatutako goi-mailako teknikari izateko prestakuntza akademikoa, eta maila altuagoko beste batzuk.
 - Gutxienez 3 urteko lan-esperientzia izatea prestakuntza-modulu honekin lotutako gaitasunen alorrean.
- b) Gaitasun pedagogikoa, eskumendun administrazioek ezarritakoari jarraiki egiaztatua.

6. Prestakuntza-kreditua: **ILEA MOZTEA, ETA TEKNIKA OSAGARRIAK**

Honako gaitasun-unitate honekin erlazionatua: ilea moztea, eta bizarra eta bibotea apaintzea eta moztea.

Edukiak eta eskuratutako gaitasun-mailaren adierazleak

Bezeroaren ilearen, buruko ile-larruaren eta fisionomiaren ezaugarriak aztertzea, eta horiek erlazionatzea bezeroaren eskakizunekin eta moda-estiloekin, ile-mozketaren forma edo mota egokiena aukeratzeko

- Ile motak sailkatzea, formaren, lodieraren, kantitatearen, egoeraren eta emultsio epikutaneo motaren arabera.
- Mozketan eragina duten ezaugarri pertsonalak deskribatzea, bai ileari dagokionez, bai eta buruko ile-larruari dagokionez ere, eta grafiko batean markatzea horiek non dauden.
- Ilean luzeraren eta bolumenen arteko erlazioa deskribatzea, honako ezaugarri fisiko hauekin:
 - Buruaren neurria eta forma.
 - Aurpegiaren morfologia.
 - Lepoaren luzera.
 - Garaiera.
- Ile-mozketaren modako joerak deskribatzea, bai eta horiek mota desberdinetako obaloetan eta profiletan nola aplikatzen diren ere.
- Bozetoen bidez, ilearen bolumenak eta luzerak aukeratzeko, honakoen arabera:
 - Obalo mota.
 - Kopeta mota.
 - Profil mota.
- Bezeroaren ezaugarriei, eskakizunei eta beharrei buruzko informazioa biltzeko fitxa teknikoak egitea.
- Oinarrizko mozkeka-formen edo moten ezaugarriak deskribatzea. Honela izendatzen dira horiek: beren erorkera naturalean, trinkoa; eta beren erorkera naturaletik kanpo, berriz, degradatua, geruzatan mailakatua, geruzatan uniformeak, eta abar. Horiek erabiliz, bakarrik edo elkarren artean konbinatuta, mozketak-estiloak egin daitezke.
-

Ilean luzera aldatzeko tresnak, osagarriak, lanabesak eta kosmetikoak aukeratzeko, estilo desberdinen eta bezeroaren beharren eta eskakizunen arabera

- Ilea mozteko prozesuan behar diren lanabesen eta tresnen zerrenda egitea.
- Mozketak-prozesua eta horren faseak azaltzea, eta horiek erlazionatzea fase bakoitzean erabiltzen diren produktuekin, baliabideekin eta lanabesekin, eta ilearen luzeran, bolumenean eta testuran eragiten diren aldaketekin.
- Ilea mozteko itxurazko egoera praktikoa batean, honakoak aukeratzeko:
 - Mozketak prestatzeko kosmetikoak.
 - Tresnak.
 - Tresna bakoitzarekin aplikatu beharreko teknikak.

Ilea mozteko prozesuaren eta horren faseen protokoloa gauzatzea, eta fase bakoitzean behar diren baliabide teknikoak, materialak eta produktuak zein diren jakitea

- Aldatu ezin diren eta mozketan eragina duten ezaugarri pertsonalak deskribatzea.
-
- Mozketak bat pertsona jakin bati egokitzea, honakoak aukeratzeko:
 - Sekzioak eta lerroak.
 - Luzeren proiektzio espazialaren eskema.
 - Gida ile-sortaren luzera-maisua.
 - Gida ile-sorta edo ile-sortak zer motatakoak izango diren eta zer norabide izango duten.
 - Ile-sorten proiektzio-angelua.
 - Mozketaren ordena.
- Mozketen oinarrizko forma edo mozketak motak deskribatzea: trinkoa, geruza degradatuta, geruza handituta eta geruza uniformetan; mozketak mota horiek erabiliz, bakarka edo elkarren artean konbinatuta, ilea mozteko estiloak gauzatu daitezke.
- Mozketako faseak eta horietako bakoitzean erabiltzen diren tresnak, materialak eta produktuak jasoko dituzten fitxak egitea.
- Ilea mozketarako prestatzeko erabiltzen diren kosmetikoak aukeratzeko irizpideak azaltzea.

- Ile-mozketan erabiltzen diren materialak, lanabesak eta tresnak desinfektatzeko eta esterilizatzeko metodoak aplikatzea.
- Ile-mozketako teknikak eta estiloak gauzatzea, bezeroaren ezaugarrien eta eskakizunen arabera, eta segurtasun- eta higiene-arauak betez prozesu osoan.
- Bezeroa jarrera anatomiko egokian jartzea, eta segurtasun- eta higiene-baldintzak betez prestatzea, bezeroa babesteko.
- Mozketa eta horren estrategia planifikatzea, ilearen luzeren proiektzio espazialaren irudikapen grafikoa egitea, eta zer elementu tekniko behar diren zehaztea.
- Oinarrizko formak dituzten mozketak egitea: trinkoa edo bere erorkera naturalean, degradatua, handitutako geruzatan eta geruza berdindutan.
- Ilean luzera aldatu aurretik aplikatu beharreko teknikak:
 - Mozketa-prozesuan erabiliko diren mozketa-tresnak eta material lagungarria garbitzeko, desinfektatzeko eta esterilizatzeko metodoak aplikatzea, eta behar den ekipamendua era ordenatuan jartzea, eta erraz har daitekeen lekuan.
 - Bezeroa prestatzea teknika horretarako egoki diren babes-neurriei jarraiki.
 - Bezeroa naturalean aztertzea ispiluaren aurrean eta posizio guztietan.
 - Ilea prestatzeko kosmetiko espezifikoak aplikatzea fabrikatzaileak ezarritako arauetara jarraiki.
 - Ilea prestatzea eta “zatiketak” egitea, lortu nahi den mozketa-estiloaren eta erabiliko den teknikaren arabera.
- Honakoak egitea:
 - Mozketaren formaren diseinua, edo ilearen luzeraren irudikapen grafikoa.
 - Proiektzio-angelua aukeratzea.
 - Gida ile-sorta edo gida ile-sortak zer motatakoak izango diren eta zer norabide izango duten erabakitzea.
 - Zer teknika erabiliko diren erabakitzea.
 - Hala badagokio, mozketa egitea.
- Mozketarako teknikak aplikatzea. punteatzea, mozketa: zuzena, hustua, lumatua, degradatua, desfilatua.
- Ilean luzera aldatzeko teknikak aplikatzeko egoera praktikoetan:
 - Ilean luzeraren eskema zehaztea, mozketa oinarri izango dena.
 - “Gida ile-sorta” non egongo den eta zenbateko luzera izango duen erabakitzea, lortu nahi den estiloaren eta luzeraren arabera.
 - Mozketa-tresnak eta tresna lagungarriak trebetasunez maneiatzea teknikak aplikatzean.
 - Ilean mozketa edo akaberarako teknikak integratzea eta aplikatzea era sekuentzian, nahi den emaitza lortzeko.
 - Behin gauzatze teknika amaitu denean, moztutako ileen hondakinak kentzea lanabes eta produktu egokiak erabiliz.
 - Behin ile-mozketa egin denean, azaltzea nola lehortu behar den nahi den emaitza lortzeko.
- Erabilpenerako baldintza higieniko-sanitario onean mantentzea ilea mozteko baliabide teknikoak eta beharrezko produktuak eta produktu lagungarriak.
- Ile-mozketako teknikak aplikatzean gehien gertatu ohi diren istripuak deskribatzea, eta zergatik gertatzen diren eta zer prebentzio-neurri har daitezkeen azaltzea.

Ile-mozketako estiloa aldatzeko prozesua ebaluatzea, bai eta lortutako emaitzak ere; emaitzak aurreikuspena egokitzeko egin beharreko aldaketak proposatzea

- Ilean luzeraren eta estiloaren aldaketaren amaierako emaitza aztertzea, eta jakitea prozesuaren zer alderdi ebaluatu behar diren zerbitzuaren kalitatea nolakoa izan den zehazteko.
- Ohiko galderak egitea bezeroa gustura geratu ote den jakiteko, zerbitzuaren emaitzari eta jasotako arreta pertsonalari eta profesionalari dagokienez.
- Mozketa-zerbitzua behar bezalakoa ez izatea eragin dezaketen arrazoiak identifikatzea; bai arrazoi teknikoak, bai eta bezeroari emandako arretari dagozkionak ere.
- Ile-mozketako zerbitzua ebaluatzea:
 - Kalitate-adierazleak identifikatzea prozesuan zehar.
 - Aurreikusitako emaitzekiko desbiderapenak identifikatzea, eta horien zergatiak arrazoitzea, bai teknikoak, bai eta bezeroari emandako arretari dagozkionak ere.
 - Zerbitzu-emateko prozesuaren eskema egitea, eta antzemandako anomaliak zer fasetan gertatu diren azaltzea.
 - Lortutako emaitzak espero ziren emaitzetara egokitzeko zuzenketa-neurriak proposatzea.
- Gertakizunak erregistratzea bezeroaren fitxan, hurrengo zerbitzuan horiek kontuan hartzeko.

Eduki horiek irakatsi ondoren, horiek menperatu dituenak gai izan behar du moduluarekin lotutako gaitasun-unitatean zehaztutako lanbide-jarduera burutzeko, aurretik deskribatutako ekoizpen- eta informazio-bitartekoak erabiliz; ohiko lanbide-testuinguruetan eta -egoeretan egingo du hori guztia.

Prestakuntza-testuinguruko oinarrizko baldintzak

1. Espazioak eta instalakuntzak

Tailer-gela, 60 m²-koa.

2. Ekipamendua

Besaulkia, apain-mahaia, kapak, toallak, mantalak, paperezko lepokoak, orraziak, guraizeak, labanak, bizar-makina elektrikoak.

3. Prestatzailearen lanbide-profila

- a) Ileanen luzera aldatzearekin eta bizarra eta bibotea apaintzearekin eta moztearekin erlazionatutako jakintzak eta teknikak menperatzea. Honako era hauetako batean egiaztatu ahal izango du hori:
 - Lanbide-arlo honekin erlazionatutako goi-mailako teknikari izateko prestakuntza akademikoa, eta maila altuagoko beste batzuk.
 - Gutxienez hiru urteko lan-esperientzia izatea prestakuntza-modulu honekin lotutako gaitasunen alorrean.
- b) Gaitasun pedagogikoa, eskumendun administrazioek ezarritakoari jarraiki egiaztatua.

7. Prestakuntza-modulua: AHOLKUAK EMATEA, ETA IRUDI PERTSONALERAKO PRODUKTUAK ETA ZERBITZUAK SALTZEA

Honako gaitasun-unitate honekin erlazionatua: aholkuak ematea, eta irudi pertsonalerako produktuak eta zerbitzuak saltzea.

Edukiak eta eskuratutako gaitasun-mailaren adierazleak

Aholkularitza- eta salmenta-egoerak aztertzea

- Salmentako jokaera programatzen laguntzea, irudi pertsonaleko enpresen helburuen eta posizionamenduaren arabera.
- Salmentarako argumentu teknikoen multzoaren ezaugarriak eta egitura deskribatzea, eta horren funtzioa zehaztea.
- Salmenta-ekintzako norberaren programazio bat egitea, salmenta-helburuei, eta enpresaren, produktuaren eta lehiakideen ezaugarriei buruzko informazio zehatzean oinarrituta; honako hauek jasoko dira programazioan:
 - Helburuak lortzeko jarduera-ildoak eta -marjinak.
 - Salmentarako argumentu multzoa.
 - Bezeroen sailkapena.
 - Bezero-zorroari buruzko informazioaren eguneratzea.
 - Egindako salmenta-eragiketen azterketa.

Irudi pertsonalerako produktuen eta zerbitzuen sustapenerako eta salmentarako teknika egokiak aplikatzea

- Bezeroa leial bihurtzeko oinarrizko teknikak deskribatzea eta azaltzea, eta esku hartzen duten elementu arrazionalak eta emozionalak aztertzea.
- Harreman komertzialetan saltzaile batek eduki behar dituen dohainak eta landu behar dituen jarrerak deskribatzea, bai aurrez aurreko salmentan, bai eta bertaratu gabeko salmentan ere.
- Bezeroaren jokaeran eta produktuak eta zerbitzuak erosteko motibazioan eragiten duten aldagaiak identifikatzea.
- Zerbitzu estetikoetako enpresetan egiten diren sustapen-ekintzetan zer helburu lortu nahi izaten diren deskribatzea, eta erabiltzen diren sustapen-baliabideak identifikatzea eta deskribatzea.
- Salmenta gehigarriak, ordezkioak eta/edo osagarriak eragiteko beste modu batzuk zehaztea.
- Produktua edo zerbitzua aurkeztea, produktu baten ezaugarrien eta bezero-talde jakin baten arabera, eta, hala badagokio, aplikazio informatikoak erabiltzea eta erakustaldi praktikoak egitea.
- Balizko bezero batekin egingo den elkarrizketa-simulazio batean, eta ezaugarri egokiak izango dituen informazioan oinarrituta:
 - Bezero jakin bat bezero leial bihurtzeko planean sartzeko irizpide komertzialak deskribatzea.
 - Harremana berezi bihurtzen duten jarduera-eremuak zehaztea, norberaren erantzukizunaren baitan.
 - Bezeroarekiko enpatia errazten duten komunikazio-teknikak eta trebetasun sozialak aplikatzea.
 - Bezeroaz gogoratzeko eta horrekiko lotura areagotzeko teknikak aplikatzea.

Produktu eta zerbitzu estetikoaren salmenta-jardueran sortutako oinarriko dokumentuak prestatzea, indarrean dagoen araudia aplikatuz, eta ezarritako helburuei jarraiki

- Zerbitzu estetikoetako eta produktuen salmentako ohiko lanekin lotzen den oinarriko dokumentazioa zein den jakitea.
- Produktu eta zerbitzu estetikoaren salmentari aplikatzen zaion araudia ezagutzea.
- Oinarriko dokumentazioa prestatzea, eta, hala badagokio, bezeroarekiko harremanetan lortutako informazioa erabiltzea horretarako.

Gatazkak eta erreklamazioak konpontzeko teknikak aplikatzea, ezarritako irizpideei eta prozedurei jarraiki

- Jarraipena eta salmenta-ondoko zerbitzua behar duten egoera komertzialak zein diren jakitea.
- Salmenta-ondoko zerbitzuaren kalitatea kontrolatzeko gehien erabiltzen diren metodoak deskribatzea.
- Prozesuan gertakizun bat antzematen den unetik aurrera jarraitu beharreko prozedura deskribatzea, eta honakoak identifikatzea:
 - Gertakizuna eragin duten arrazoiak.
 - Erantzukizun-eremua.
 - Sistemarako egokia den jokaera, aurretik ezarritako irizpideekin bat datorrena, zerbitzua egokia dela bermatuko duena, eta, hala badagokio, salmenta-ondoko kudeaketarako tresna informatikoan bildutako informazioa erabiliko duena.
- Ezaugarri jakin batzuk dituzten bezeroak leial bihurtzeko itxurazko egoera batean, komunikabide desberdinen bidez, eta, hala badagokio, programa informatiko bat erabiliz:
 - Egoera bakoitzera egokitutako idazlanak egitea -onomastika, gabonak, eskerrak-, garbitasunez eta zehaztasunez, testuaren helburuen eta erabiliko den kanalaren arabera -posta elektronikoa, posta, telefonoa, mugikorreko mezuak eta bestelakoak-.

Eduki horiek irakatsi ondoren, horiek menperatu dituenak gai izan behar du moduluarekin lotutako gaitasun-unitatean zehaztutako lanbide-jardura burutzeko, aurretik deskribatutako ekoizpen- eta informazio-bitartekoak erabiliz; ohiko lanbide-testuinguruetan eta -egoeretan egingo du hori guztia.

Prestakuntza-testuinguruko oinarriko baldintzak

1. Espazioak eta instalakuntzak

Tailer-gela, 60 m²-koa.

2. Ekipamendua

Datu-baseen programak, testu-tratamenduko programak, aplikazio informatikoak.

3. Prestatzailearen lanbide-profila

- a) Iruki pertsonalerako ile-apainketako eta estetikoaren produktuen eta zerbitzuen aholkularitzarekin, sustapenarekin eta salmentarekin erlazionatutako jakintza eta teknikak menperatzea.
 - Lanbide-arlo honekin erlazionatutako lizentziatu izateko prestakuntza akademikoa, eta maila altuagoko beste batzuk.
 - Gutxienez 3 urteko lan-esperientzia izatea prestakuntza-modulu honekin lotutako gaitasunen alorrean.
- b) Gaitasun pedagogikoa, eskumendun administrazioek ezarritakoari jarraiki egiaztatua.

8. Prestakuntza-modulua: LANTOKIKO PRESTAKUNTZA

Helburuak

1. Profileko lanbide-gaitasunak eskuratzeko prozesua osatzea zentroan bertan.
2. Lanbide-nortasuna eta -heldutasuna eskuratzeko, bizi osoan zehar ikasten jarraitzeko motibazioa emango dutenak, bai eta kualifikazio-beharren aldaketetara egokitzeko motibazioa ere.
3. Enpresen ekoizpenarekin, merkaturatzearekin, kudeaketa ekonomikoarekin eta harreman soziolaboralen sistemarekin lotutako jakintza osatzea, lan-munduan sartzea errazteko.
4. Ikasleak hezkuntza-zentroan bereganatutako profesionaltasunaren alderdi garrantzitsuenak ebaluatzea, eta lan-egoera errealek eskatzen dituztelako egiaztatu ezin diren lan-alderdiak ziurtatzea.

Egin beharreko oinarriko jarduerak

- Bezeroei aholku pertsonalizatuak ematea, horien ilearen eta fisionomiaren ezaugarrien arabera.
- Tratamendu kapilarretan parte hartzea, eta oinarritzko masajeak erabiltzea tresna gisa.
- Higiene kapilarreko teknikak aplikatzea, bezero bakoitzera egokituz, eta segurtasun-baldintza egokietan, eta emaitza estetiko bikainak lortzea.
- Ilean denbora baterako eta betirako aldaketak egitea, eta dagozkion teknikak aplikatzea egoera bakoitzean.
- Ilean kolorea aldatzeko egin behar diren lanak egitea.
- Manikurako oinarritzko teknikak lantzea.
- Eguneko makillajeko oinarritzko prozesuak gauzatzea.
- Iruki pertsonalerako produktuen eta zerbitzuen sustapenerako eta salmentarako teknika egokiak aplikatzea.
- Ile-mozketako prozesuetan parte hartzea.
- Bezero errealean tratuan parte hartzea, eta arreta emateko eta bezeroa segurtasun- eta higiene-baldintzetan jartzeko lanak egitea.

9. Prestakuntza-modulua: **ORIENTAZIOA ETA TUTORETZA**

Helburuak

Prestakuntza-modulu honetako edukiak eta jarduerak ikasi eta gainditu ondoren, ikasleak honako jokoera eta portaera hau izango du:

1. Bat etorriko da ezarritako profiletik sortutako lanbide-aukerarekin, eta bokazio bihurtuko du aukera eta erabaki hori.
2. Lanean eta sozialki aurrera egiteko gogoia erakutsiko du, eta aurrerapenerako aukerak, laguntzak, ibilbideak eta emaitzak ikusteko gai izango da.
3. Norberaren ahalmen-potentziala, gaitasunak eta egoera pertsonala zein diren jakingo du helburuei eta proiektuei aurre egiteko orduan; erabakiak hartuko ditu eta arazoak konpontzeko irtenbideak bilatuko ditu, beti ere, testuinguru sozialekiko eta lanbide-testuinguruekiko koherentzia mantenduz.
4. Lan-merkatuan esku hartuko du, laneratzeko aukerak bilatuko ditu, eta norberaren helburu sozio-pertsonalekin orekatuko du bere aurrerapena.

Edukiak eta egin beharreko jarduerak

Norberaren lanbide-aukera kokatzea eta horren ezaugarriak zehaztea

- Programaren profilararekin lotutako sektorea deskribatzea.
 - Sektore horretan zer jarduera egiten diren jakitea.
 - Sektore horretan zer enpresa dauden jakitea.
 - Bezero/erabiltzaile motak identifikatzea.
- Sektoreko lanbide eta lan-kategoria ohikoenak zein diren jakitea.
- Profilararekin lotutako lanbideak dituen ezaugarri nagusiak deskribatzea.
 - Zer lan-ohitura eskatzen dituen jakitea.
 - Zer jarrera pertsonal eta sozial eduki behar diren jakitea.
- Prestakuntzaren prestakuntza-ibilbideak deskribatzea, bai eta etorkizuneko aukerak ere.
- Karrera profesionalerako interes, trebetasun eta motibazio pertsonalak aztertzea.

Lanean eta bizitza pertsonalean aurrera egiteko beharrak zein diren jakitea

- Erabakiak hartzeko prozesua aztertzea.
 - Erabakiak hartzerakoan nola jokatu behar den deskribatzea.
 - Iniziatibaz jokatzea erabaki bat hartu behar denean.
- Antolaketa-egiturak aztertzea; arazoak eta funtzioak.
- Lan-taldearen osaketa aztertzea.
 - Lan-talde baten ezaugarriak deskribatzea.
 - Talde-lana baloratzea.
- Arazoak edo gatazkek zer esan nahi duten interpretatzea eta zer motatako arazoak diren jakitea.
 - Gatazka bati aurre egiteko erabili beharreko jokoerak zein diren jakitea.
 - Mota desberdinetako gatazkek identifikatzea, bai eta horiei aurre egiteko jokoerak ere.
 - Gatazka bati aurre egiteko irtenbide posibleak identifikatzea, eta, hala badagokio, horren arabera jokatzea.
- Jakitea zer ohitura diren kaltegarri lanbide-garapenerako.

Lan-merkatuko dinamika

- Lan-zuzenbideko oinarriko kontzeptuak deskribatzea.
- Kontratu motak deskribatzea.
- Kontratua aldatzeko, amaitzeko edo eteteko zer arrazoi dauden jakitea.
- Nomina bat deskribatzea.
 - Soldata kalkulatzea.
 - Kotizazio-oinarria kalkulatzea.
 - Gaixotasunagatiko edo istripuagatiko prestazioak kalkulatzea.
 - PFEZ kalkulatzea.
 - Deskontuak kalkulatzea.
- Gizarte segurantzak, mutualitateek eta estatuko enplegu-zerbitzu publikoak zer prestazio eta babes-ekintza eskaintzen dituzten jakitea.
- Hitzarmen baten alderdi garrantzitsuenak zein diren jakitea, langileen eta enpresen eskubideei eta betebeharrari dagokienez.
- Lana bilatzeko eta esku hartzeko zer bide dauden jakitea.
- Aurkezpen-gutun bat idaztea.
- Curriculum vitae bat idaztea.

Proiektu eta helburu profesionalak eta pertsonalak

- Norberaren nahiak eta helburuak zein diren jakitea.
- Ahuleziak, mehatxuak, indarrak eta aukerak aztertzea.
- Plangintza egitea epe ertainera edo epe luzera.
- Zein helburu lortu diren jakitea.
- Helburuei dagokienez, lanak aurrera egin ote duen aztertzea.
- Lan-egoerek edo egoera pertsonalek proposatutako helburuetatik urundu edo horietara hurbildu egiten gaituzten jakitea.
- Lana garapen pertsonalaren zati bat dela onartzea.
- Aisialdi-beharrak edo familia eta lana bateratzeko beharrak identifikatzea, pertsonalki eta emozioei dagokienez aurrera egin ahal izateko.
- Nork bere interesak eta nahiak onartzea, norberaren bizitza afektiboari, familiari eta zaletasunei dagokienez.

Gatazkak

- Definizioa, ezaugarriak eta motak.
- Horiek konpontzeko edo desagerrarazteko metodoak.
- Lan-inguruneko komunikazioa.

Ohiturak eta jarrerak

- Zer diren.
- Horiek nola eragiten duten garapen profesionalean.
- Lanaren balioa.
- Lanarekiko jarrera.
- Ohitura eta jarrera positiboak, lana mantentzeko.
- Jokaerak. Zer diren, eta horiek nola lantzen diren.
- Laneko motibazioa.

Lan-arloko oinarriko legeria eta lan-kontratuak

- Lan-harremanen motak eta oinarriko kontratuak.
- Kontratu bateko osagai nagusiak: lanaldia, ordutegia, iraupena, probaldia, ordainsaria eta oporrak.
- Langileen eta enpresarien eskubideak eta betebeharrak.
- Hitzarmen kolektiboak: xedeak eta funtzioak.

Soldata-orria eta gizarte segurantza

- Definizioa eta atalak.
- Sortzapenak, kenkariak eta kotizazio-oinarriak.
- Enpresen eta langileen betebeharrak.
- Gizarte segurantzak jasotzen dituen prestazioak.

Langileen parte-hartzea enpresan

- Sindikatu-agentek.
- Negoziazio kolektiboa.
- Enpresaburuen elkarteak.

Lana bilatzea

- Lan-merkatua.
- Nork bere burua orientatzea.
- Lana aktiboki bilatzeko teknikak.
- Curriculuma: motak.
- Lan-eskaintza publikoak.

Proiektu eta helburu pertsonalak

- Zer diren, eta horiek nola lantzen diren.
- Oinarrizko psikologia.
- Bizitza-proiektu pertsonala.
- Aisialdia.
- Bizimoduak eta harreman sozialak.
- Autoebaluazio pertsonalerako teknikak.

Laneko segurtasuna eta osasuna: oinarrizko kontzeptuak

- Lana eta osasuna: lan-arriskuak. Arrisku-faktoreak.
- Lanak eragindako kalteak. Laneko istripuak eta gaixotasunak. Lanak eragindako beste patologia batzuk.
- Lan-arriskuen prebentzioaren alorreko oinarrizko araudia. Alor honetako eskubideak eta betebeharrak.

Arrisku orokorrak eta arriskuen prebentzioa

- Segurtasun-baldintzekin lotutako arriskuak.
- Laneko ingurumenarekin lotutako arriskuak.
- Lan-karga, nekea eta lanarekin gustura ez sentitzea.
- Arriskuak kontrolatzeko oinarrizko sistemak. Babes kolektiboa eta norbanakoarena.
- Larrialdi- eta ebakuazio-planak.
- Langileen osasuna zaintzea.

Prestakuntza-testuinguruko oinarrizko baldintzak

1. Espazioak eta instalakuntzak

Balio anitzeko gela, ikasle bakoitzeko 2 m²-koa gutxienez.

2. Prestatzailearen lanbide-profila

- a) Orientazioarekin eta tutoretzarekin erlazionatutako jakintzak eta teknikak menperatzea. Honako era hauetako batean egiaztatu ahal izango du hori:
 - Prestakuntza akademikoari dagokionez, diplomatua izatea gutxienez, edo maila altuagoko tituluren bat, lanbide-arlo honekin erlazionatutakoa.
 - Gutxienez 5 urteko lan-esperientzia izatea prestakuntza-modulu honekin lotutako gaitasunen alorrean.
- b) Gaitasun pedagogikoa, ezarritakoari jarraiki egiaztatua.

II. ERANSKINA

1. Honako hauek izango dira lehenengo mailako modulu espezifikoen ordutegiak:

| Prestakuntza-modulu espezifikoa | Gutxieneko orduak asteko | Erreferentziazko orduak asteko |
|--|--------------------------|--------------------------------|
| Ile-apainketara aplikatutako higieena eta asepsia | 3 | 4 |
| Orrazkeraren forma aldatzeko muntaiak eta orrazkerari hasiera ematea | 5 | 7 |
| Ilearen kolorea aldatzeko kosmetikoak aplikatzea | 6 | 7 |
| Aukeran erabilgarriak | 4 | |

- Lehenengo mailan, derrigorrez irakatsi beharko dira honako prestakuntza-modulu espezifikoko oso hauek:
 - Ile-apainketara aplikatutako higieena eta asepsia.
 - Orrazkeraren forma aldatzeko muntaiak eta orrazkerari hasiera ematea.
 - Ilearen kolorea aldatzeko kosmetikoak aplikatzea.
- Lehenengo mailan, prestakuntza-modulu espezifikoen ordutegiak inola ere ez dira izango asteko 18 ordutik gorakoak.

2. Honako hauek izango dira bigarren mailako modulu espezifikoen ordutegiak:

| Prestakuntza-modulu espezifikoa | Gutxieneko orduak asteko | Erreferentziazko orduak asteko |
|---|--------------------------|--------------------------------|
| Azazkalen oinarrizko zainketa estetikoak | 3 | 4 |
| Eguneko makillajea | 3 | 4 |
| Aholkuak ematea, eta irudi pertsonalerako produktuak eta zerbitzuak saltzea | 3 | 3 |
| Ilea moztea, eta teknika osagarriak | 3 | 4 |
| Aukeran erabilgarriak | 3 | |

- Bigarren maila honek 24 asteko iraupena izango du hezkuntza-zentroan. Gainerako asteak LPrako erabiliko dira; LPren guztirako derrigorrezko ordutegia 330 ordukoa izango da.
 - Bigarren mailan, prestakuntza-modulu espezifikoen ordutegiak inola ere ez dira izango asteko 15 ordutik gorakoak.
3. Orientazioa eta tutoretza moduluak asteko bi orduko iraupena izango du derrigorrez maila bakoitzean.